

LARRABETZUKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA EGITEKO  
HERRITARREN PARTAIDETZA PROZESUA

**HASTAPENEAN ONARTZEKO AGIRIA  
IDAZTEKO IRIZPIDEAK**

Plan nagusia egiteko prozesu parte-hartzaileak erakutsi du orokorrean gure herri ereduari buruzko gogobetetasuna dagoela: tamaina, gizarte harremanak, ekipamenduak, naturarekiko harremana... Gogobetetasun hori honakoetan sumatzen da:

- Eredu horri eutsi edo haren ezaugarri edo alderdi andeatuak (hala nola natura ingurunea) berreskuratzeko gogo bizia.
- Hazkundera bizi kalitatearen hobekuntzaren sinonimoa izatearen ustea arbuiatzea.

#### *IRIZPIDE OROKORRA*

---

Plan nagusi berriak ingurunea errespetatzea, dauden baliabideen (bizileku parkea, ekipamenduak, espazio publikoak) erabilera ona egitea, eta disfuntzioak (mugikortasuna eta trafikoa, ibaiarekiko harremana) zuzentzea lehenetsi behar ditu, hedatzeari begiratu barik.

Sendotzeko eta hobetzeko plana izan behar du, ez hazkunde plana.

#### *IRIZPIDEAK ETA LEHENTASUNAK*

---

### **1. NATURA ERRESPETATZEAREN IRIZPIDEA**

- 1.1 Ibaiaren hiri barruko ingurunea berreskuratzea
- 1.2 Baso autoktonoak berreskuratzea
- 1.3 Iturriak eta iturburuak babestea
- 1.4 Etxeko hondakin organikoak natura ziklora itzultzea
- 1.5 Lurzorua aurrezte
- 1.6 Energia aurrezte
- 1.7 Ura aurrezte
- 1.8 Paisaia zaintzea
- 1.9 Jarduera kutsagarriak galaraztea

### **2. DAUDEN BALIABIDEAK ONDO ERABILTZEAREN IRIZPIDEA**

- 2.1 Etxebizitza hutsak edota birgai daitezkeenak bultzatzea berriak eraiki baino lehen
- 2.2 Beheko solairu komertzial hutsak etxebizitzarako erabiltzea baimentzea
- 2.3 Industriarako dagoen baino lurzoru gehiago ez gordetzea
- 2.4 Industrial lekuz ez aldatzea horrek bizitegia gehiago handitzea badakar
- 2.5 Dauden ekipamenduak eta lokalak optimizatzea

### **3. DAGOENA ZUZENDU EDO HOBETZEAREN IRIZPIDEA**

- 3.1 Ibaiaren ingurunea hiriarekin bateratzea
- 3.2 Uholdeak prebenitzea
- 3.3 Osasun zerbitzu gehiago jartzea
- 3.4 Bizikletaren erabilera bultzatzea
- 3.5 Trafikoa eta aparkamendua berrantolatzea

- 3.6 Garraio publikoa hobetzea
- 3.7 Bidexka sarea babestu eta zaintzea
- 3.8 Ondare historikoa eta kulturala babestu eta zaintzea

#### **4. HAZKUNDE BEHARREZKO ETA NAHIKOAREN IRIZPIDEA**

- 4.1 Behar den etxebizitza baino ez eraikitzea
- 4.2 Arrazoizko prezioko etxebizitza eraikitzea
- 4.3 Etxebizitza metatua eraikitzea
- 4.4 Eskola hobetzea eta hura handitzeko aukera aurreikustea
- 4.5 Eguneko zentroa egitea
- 4.6 Skate pista eraikitzea

#### **5. BURUASKITASUNAREN ETA TOKIKOARI LAGUNTZEAREN IRIZPIDEA**

- 5.1 Merkataritza txikia bultzatzea
- 5.2 Lehen sektorea bultzatzea
- 5.3 Landa turismoa bultzatzea

#### **6. KOMUNITATEKO BIZITZAREN IRIZPIDEA**

- 6.1 Erabilerak nahastea: dendak eta etxebizitzak beheko solairuetan
- 6.2 Oinezkoentzako gune gehiago egitea edo oinezkoa lehenestea
- 6.3 Aterpea eraikitzea
- 6.4 Espazio publikoak hobetzea

Irizpideekin batera prozesuan jasotako ekarpenak eta honakoetatik datozen testuak bildu dira:

### **1. BIZKAIA 21 PROGRAMA (2011-2016)**

Bizkaiko Foru Aldundiak onartu zuen 2011ko maiatzaren 17an. 2011ko ekainaren 24ko 121. BAO.

*"Programa Aalborg+10eko 10 konpromisoen inguruan egituratu da; 34 jardunbide estrategiko eta 93 helburu identifikatu dira eta 332 jarduketa proposatu dira. Haiek erdiesteko Foru Sail guztiek jardun beharko dute.*

*Hala, Bizkaiko Lurralde Historikorako eta hura osatzen duten udalerrietarako hazkunde jasangarriko ereduaren aldeko konpromisoan politikak bideratu dituzten ekintzak jaso ditu agiriak.*

*Beraz, eta ikusten denez, estrategia guztiz zeharkakoa da, Bizkaiko Lurralde Historiko osoa ukitzen du eta hari dagozkion politika guztietan du eragina. Edo bestela esanda, hura garatzeko administrazio ikuspegia, Bizkaiko Foru Aldundiari berari ez ezik, gainontzeko administrazioei eta bereziki Bizkaiko Udalei ere begira dago."*

(Sarrera, 3. orrialdea)

### **2. LARRABETZUKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIAREN INGURUMEN-INPAKTUAREN ATARIKO TXOSTENA.**

Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Sailak egina. 2012ko ekainaren 25ko 849. Foru Agindua.

#### **BIZKAIA 21 PROGRAMA (2011-2016)**

5.1. jardunbide estrategikoa. HIRIGINTZA PLANGINTZA JASANGARRIA GARATZEA  
5.1.1.A. jarduketa Hirigintza jasangarriaren eremuan Jardunbide egokien katalogoa egitea Bizkaiko udalerrri guztietako -baita euren hirigintza planeamenduak onartzeko eskumena dutenetako- lurralde plangintzan eta hirigintza planeamenduetan sartzeko, eta tokiko hirigintza plangintzan eraikuntza teknologia jasangarri berriak erabiltzea sustatzea.

# 1. NATURA ERRESPEKTATZEAREN IRIZPIDEA

## **ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

Orokorrean ibaiak zikin sentitzen dira, batez ere zona batzuetan, hala nola Sarrikolan, Zubitalden edo Delicassen.

### **TXOTX KAFE**

- Ibaia eta haren ibaialde berreskuratzea. Sierratik Sarrikolaraino.

### **HIRIGINTZARI ETA EGUNEROKO BIZITZARI BURUZKO TAILERRA**

- Ibaia eta haren ingurunea garbitzea. Esparru atseginak sortzea.
- Eskudelak beharrezkoak diren tokietan baino ez
- Ibaiaren ondoko bidea, esparru irekiak utziz, haren ekosistema errespetatuz, esku-hartze bortitzik gabe.
- Uraren kalitatea (batez ere Atxispen), ekosistemak eta espezie aberastasuna aztertzea.

### **AURRERAPEN AGIRIARI BURUZKO TAILERRAK**

- Babesguneak ibai ertzetan, paraleloak edo erradialak.
- Ibaia berreskuratzea: baratze komunitarioak, flora autoktonoa, fruitu arbolak... jarriz eta ahalik eta lur gutxien mugituz. Egungo proiektua ezestea.

### **IDEIA JASA**

Ibaia berreskuratzea:

- Hiri esku-hartzearen ordeztasuna berreskuratzea. Landaretza autoktonoa espezie inbaditzaileen aurrean.
- Jolas parke zabala.

### **BIZKAIA 21 PROGRAMA (2011-2016)**

3.3.1.B. jarduketak. Ibai sarean ibaialdeko basoa birsortzeko programa egitea, batez ere mendi publikoetara eta titulartasun publikoko lursailei erreparatuz.

### **INGURUMEN-INKAPTUAREN ATARIKO TXOSTENA.** 14. or.

Hondakin-urak Aretxabalagane ibaiaren azpiarroan eta Atxispe ibaian sare hidrologikora husteko puntuak identifikatuko dira; azken kasuan, eremu horretan dagoen hondakindegia azpimarratu behar da.

(...) sare hidrografiko hori osatzen duten erreken egoera aztertu behar litzateke. Komenigarritzat jo da isurketak (kokapena eta ezaugarriak), arroaren aldaketak (ubideratzeak, urperatzeak, presak, etab.) eta ibaialdeko landaretza (dagoen landaretza eta haren tipologia) identifikatzea.

Halaber, arroen edo azpiarroen artean dauden fluxuak identifikatu behar dira, iragazketa naturalak bultzatzeko behar den neurriak hartu ahal izateko eta etorkizunean uholdeak eragin ditzaketen isurtzeen metaketaren ondorioak saihesteko.

Azkenik, eta udalerrian dagoen iturburu eta putzu kopuru handia kontuan hartuta, birkarga guneak eta lur azpiko ur fluxu nagusiak identifikatuko dira.

19. or.

- Jabari Publiko Hidraulikoa babestu eta hobetu ahal izateko arauak jasoko ditu planak. Horretarako eta Aretxabalagane ibaiaren 9 arearen inguruaren eta 12 arean proposatutako inguruaren artean lotzea bultzatzeko asmoaren ildo beretik, udalerriko ibai sare osoaren ingurunea berreskuratzen lagunduko duten arauak eta baldintzak jaso beharko dira. Horretarako, Larrabetzuko Jabari Publiko Hidrauliko osoan ibaialdeko landaretza birsortzeko helburua aintzat hartu ez ezik, udalerrian faunaren mugikortasunerako dauden puntu beltzak (adib.: hoditeriak, hormigoizko zorrotak, etab.) identifikatuko dira eta egokitu egingo dira, tokiko mugikortasun hori hobetzeko. Horretarako. Biso Europarraren Kudeaketa Planean bildutako arauak arreta bereziz beteko dira.

## **1.1. Aretxabalagane ibaiaren hiri barruko ingurunea berreskuratzea.**

- LURRAREN EROSKETA PUBLIKOA.

- BORTIZKERIARIK GABEKO ESKU-HARTZEA IBAIAN. HERRITARREN PARTAIDETZAREKIN, EGUNGO UBIDERATZE PROIEKTUA BERRIKUSTEA.
- IBAIETAKO URAREN KALITATEAREN AZTERKETA.

#### **TXOTX KAFE**

- Gaztelumendi espezie autoktonoekin basoberritzea.

#### **HIRIGINTZARI ETA EGUNEROKO BIZITZARI BURUZKO TAILERRA**

- Baso autoktonoak babestu eta zaintzea. Batez ere Gazteluko artadia.

#### **AURRERAPEN AGIRIARI BURUZKO TAILERRAK**

- Baso autoktonoa babestea; igarobide ekologikoak dauden basoen artean.

#### **IRADOKIZUNAK**

- Baso-soilketak saihestea, pistak zabaltzearen arautze murriztailea, hondeamakinaz garbitzea eta luberritzeak galaraztea (hobe biobirrintzea), mozketen ondoren berezko birsortzea handitzea, espezie exotikoak landatzea galaraztea.

- Abereen mugimenduak arautzea.

#### **BIZKAIA 21 PROGRAMA (2011-2016)**

3.1.7.B. jarduketa. Bizkaian baso autoktonoen eremua (isurgunea) handitzea sustatzea.

3.1.7.E. jarduketa. Isurguneak bezalako erregulazio zerbitzuak ematen dituzten basoen titularrentzat Ingurune Zerbitzuengatiko Ordainketa (kenketak edota diru-laguntzak) kudeaketa tresna jartzea.

3.1.7.F. jarduketa. Lurzoruan pilatutako materia organikoa galtzea ekiditen duten baso erabilerako praktikak sustatzea.

3.1.7.G. jarduketa. Lurraldearen Zaintza tresna sustatzea bizi ziklo luzeko isurgune baso autoktono bizkorrak eta helduak lortzeko.

3.3.1.C. jarduketa. Erregulazio hidroagrológicoari dagozkion baso jardunbide onei buruzko araudia onartzea.

8.1.1.A. jarduketa Bizkaian baso kudeaketa jasangarriaren ziurtagiriak bultzatzen jarraitzea.

#### **INGURUMEN-INPAKTUAREN ATARIKO TXOSTENA. 13. or.**

(...) HAPNk bere eskumenen eremuan EAEko Bioaniztasunaren Estrategian zehaztutako jarduketak jaso beharko ditu,, dagozkion neurrian. Neurri horien artean honakoak egon litezke:

- Baso lanak arautzea (pisten sorreraren kontrola eta haiek lehengoratzeko plana, sastrakak kentzearen hondakinen kudeaketa, azaleko ur ibilguen babesa, etab.)

- Zuhaitzun eremuak espezie autoktonoekin babestea eta hura handitzea sustatzea (adin.: borondatzeko hitzarmenak, zerga neurriak, neurri hertsagarriak, etab.)

- Flora eta fauna exotikoko espezieen presentzia kontrolatzea eta gutxitzea.

- Sistema hidrologikoaren kalitatea eta kantitatea babestea, etab.

17. or.

(...) Larrabetzuko HAPN berriaren idazketak espazio naturalak berreskuratu edo hobetzeari dagokionez ematen dituen aukerak aztertu behar lirateke, populazio urriak direla eta isolamendurako joera duten espezie basatiak dituzten espazio naturalen arteko lotura funtzionala bultzatzeko, toki mailan igarobide ekologikoen sarea sortzea sustatuz.

Alderdi hori Bisoi Europarraren Kudeaketa Planean jasotako "ibai ibilguak zaintzea eta hobetzea" arauari zuzenean lotuta dago.

19. or.

Besteak beste, derrigorrez, honakoak zehaztu eta idatzi behar dira:

- Lurraldean dagoen flora exotiko inbaditzailea erauzteko plana zehaztu. Baita haiek sartzeta edo hedatzea saihesteko neurriak ere (...)

- Egun dagoen landaretza autoktonoaren eremuak eta definitutako interes komunitarioko habitat naturalak babesteko eta hedatzeko neurriak (...). Halaber, higaduraren aurkako neurriak hartuko dira, hala nola zuhaitzik gabeko zonetan landatzea, ustiapeneko baso eremuak kudeatzeko araudia (pista bertikalak saihestea, birsortzeko neurriak, etab.)

20. or.

ECIaren azterlanak azterlanaren eremuko ingurunearen kartografia egin du (...) baina honako alderdiak osatu beharko dira bertan:

- Landaretza exotiko inbaditzailearen kokapena.

- Bisoi europarraren mugikortasunerako puntu beltzak.

- Faunaren toki mailako lotura guneen identifikazioa. Haren egoera aztertu eta haren funtzionaltasuna zaindu edota hobetzeko behar diren neurriak hartu.

## **1.2. Baso autoktonoak berreskuratu**

- GAZTELU/ GAZTELUMENDIRENTZAKO BABES BEREZIA.

- IBAI ERTZETAN, SANTIAGORAKO BIDEAN ETA GR ETA PR BIDEXIDORRETAN IGAROBIDE EKOLOGIKOAK SORTZEA (ZUHAITZ AUTOKTONOAK JARRITA).
- BASO ZORU PRODUKTIBOAN, MOZKETA BAKOITZAREN ONDOREN, PERIMETROAN ZUHAITZ AUTOKTONOAK LANDATZEA (BERRITUTAKO EREMUAREN %5).
- BASO KUDEAKETA JASANGARRIA (BASO ZIURTAGIRIA): PISTAK IREKITZEAREN, GARBIKETEN, BASO-SOILTZEEN... KONTROLA.

**TXOTX KAFE**

- Iturriak eta iturburuak babestea. Uraren presentzia berreskuratzea.

**HIRIGINTZARI ETA EGUNEROKO BIZITZARI BURUZKO TAILERRA**

- Iturrien eta iturburuen inbentarioa eta babesa.

**1.3. Iturriak eta iturburuak babestea**

- ITURRIEN ETA ITURBURUEN BABESA ETA HAI EK BERRESKURATZEKO ETA BABESTEKO PLANA.

**ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

Birziklatze sistemei dagokienez ere, balorazioa positiboa da, bai zaborrak biltzeko sistemari, birziklatzeko dauden edukiontziei (periferiako kopurua handitu eta mota berriak esperimentatu balitezke ere) eta estolderia sistemari dagokienez.

**HIRIGINTZARI ETA EGUNEROKO BIZITZARI BURUZKO TAILERRA**

- Tokiko konpostaje planta. Etxeko, hondakinetarako, inausteetarako eta belar mozketetarako.

**AURRERAPEN AGIRIARI BURUZKO TAILERRAK**

- Konpostajeari [...] laguntzeko azpiegiturak sortzea (planta bat jartzea).

**IDEIA JASA**

- Autokonpostajea lurra duten etxeetan.
- Zati organikoaren bilketa selektiboa.
- Lurzorua konpostaje planta baterako gordetzea.

**BIZKAIA 21 PROGRAMA (2011-2016)**

4.3. jardunbide estrategikoa. Hondakin gutxiago sortzea eta haien kudeaketa hobetzea.

4.3.4.D jarduketa. Landa udalerrietan edo familia bakarreko etxebizitza kopuru handia dagoen tokietan autokonpostajea sustatzea.

4.3.4.E. jarduketa. Nekazaritza ustiategiaren konpostaje ohiturak bultzatzea.

**INGURUMEN-INPAKTUAREN ATARIKO TXOSTENA. 9. or.**

Horretarako Larrabetzuko HAPNk honakoak sustatuko ditu:

- Hondakinen produkzioa gutxitzea eta haien kudeaketa hobetzea, berrerabiltzeko, birziklatzeko eta balioa gehitzeko hierarkian oinarrituta.

**1.4. Etxeko hondakin organikoak natura ziklora itzultzea**

- KONPOSTAJE PLANTARAKO LURZORUA GORDETZEA.

**ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

Larrabetzu hiri eraikuntzan jasagarritasun irizpideak sartzearen alde dago (haren kostua gorabehera).

**TXOTX KAFE**

- Lurzoru urbanizagarri gehiagorik ez kalifikatzea.
- Okupatu gabeko eremuak erabiltzea (Conauta, Sindicato).
- Landa gunek hiri gunek ez bihurtzea.

**AURRERAPEN AGIRIARI BURUZKO TAILERRAK**

- Urbanizatuta dauden eremuak optimizatzea.

**IDEIA JASA**

- Ukituta dauden bizitegi eta industria zoruak berrerabiltzea zoru birjinak okupatu aurretik.

**BIZKAIA 21 PROGRAMA (2011-2016)**

3.1.5.A. jarduketa Beste lurzoruen aurretik hiri lurzoruak berrerabiltzea lehenestea.

3.1.5.B. jarduketa. Landako lurrak eremu urbanizagarri bihurtzeko birkalifikatzea gutxitzea.

3.1.5.D. jarduketa Egungo guneei lotuta ez dauden hirigintza garapen berriak saihestea, hiri eremu zaharkituak birsortuz eta dauden hiri kokalekuen arteko bilbeak osatuz.

**1.5. Lurzorua aurrezte**

- LURZORU BIRJINAK OKUPATZEA SAIHESTEA ETA ARTIFIZIALDUTA DAUDENAK ERABILTZEA
- HIRI LURZORUA EDO URBANIZAGARRIA INDARREKO ARAU SUBSIDIARIOAK ERABILI BARIK BIRTRINKOTZEA

#### **ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

Larrabetzu hiri eraikuntzan jasagarritasun irizpideak sartzearen alde dago (haren kostua gorabehera).

#### **TXOTX KAFE**

- Energia alternatiboen erabilera.
- Gehiegizko argizatzea (argi-kutsadura).

#### **IDEIA TAULA**

- Argi gehiegi Zubitaldeko zabuetan.

#### **HIRIGINTZARI ETA EGUNEROKO BIZITZARI BURUZKO TAILERRA**

- Energia berriztagarrien eta energia aurreztearen alde egitea. Eraikin berrietan buruaskitasun energetikorako araudia.
- Argiztapena egokitzea, urria toki batzuetan gehiegizkoa beste batzuetan. Zuhaitzek eta farolek elkar ez oztopatzea.

#### **AURRERAPEN AGIRIARI BURUZKO TAILERRAK**

- Energia sistema jasagarriak, berriztagarriak.
- Argiztapenaren antolamendua eta oreka.
- Buruaskitasun energetikoa; energia berriztagarrien erabilera (nekazaritza ustiatagietan).

#### **BIZKAIA 21 PROGRAMA (2011-2016)**

4.4. jardunbide estrategikoa. Bizkaiko politika energetikoa aldatzen laguntzea  
4.4.2.E. jarduketa. Eraikinen eraginkortasun energetikoa udalerriekin hitzarmenak eginez sustatzea, planeamendu orokorrean sartutako ordenantza batean neurri zehatzak jasoz.

7.2.1.F. jarduketa. Udalei eta mankomunitateei laguntzea argi-kutsadura murrizteko diagnostikoak eta planak egiteko.

10.2.1. helburua. Berotegi-efektuko gas isurketak murrizteko Europako helburua betetzeko ekintzak bultzatzea, eraginkortasun neurrien bidez energia kontsumoan aurrezte eta energia berriztagarrien ekarpena handitzea.

10.2.1.D. jarduketa. Bizkaiko udalerrri eta eskualdeetan energia berriztagarri planak onartzen laguntzea.

#### **INGURUMEN-INPAKTUAREN ATARIKO TXOSTENA. 19. or.**

Hirigintza araudiak honako helburuak bermatzen dituzten eskakizunak definitu beharko dituzte hirigintza garapenetarako:

- Larrabetzuko HAPN garatzeko plan eta proiektuetan bete beharreko ingurune irizpideak definitzea, bai urbanizazio lanei bai eraikuntzari dagokienez. Gutxienez honako alderdiak jaso beharko dira: erabiliko diren materialak, eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien erabilera (...)
- Kanpoko argizatze instalazioen diseinu, gauzatze eta mantenurako baldintza teknikoak definitzea (...), argi-kutsadura mugatu xedez.

### **1.6. Energia aurreztea**

- ERAIKIN BERRIETAN ENERGIA AURREZTEKO ARAUDIA.
- ARGIZTAPEN PUBLIKOAN AURREZTEKO ARAUDIA. AURREZTUTAKOIA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK BULTZATZEN ERABILIKO DA.
- ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ERABILERA BULTZATZEKO ARAUDIA.

#### **ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

Larrabetzu hiri eraikuntzan jasagarritasun irizpideak sartzearen alde dago (haren kostua gorabehera).

#### **HIRIGINTZARI ETA EGUNEROKO BIZITZARI BURUZKO TAILERRA**

- Euri-uren ustiapena.

#### **INGURUMEN-INPAKTUAREN ATARIKO TXOSTENA. 9. or.**

Horretarako Larrabetzuko HAPNk honakoak sustatuko ditu:

- Hiri sistemetan natura baliabideak aurrezte, ur hornidura bermatuz, haren kontsumoa gutxituz eta saneamendu-uren natura ingurunerako isurketaren ezaugarriak hobetuz. Horretarako ur edangarriaren kontsumo premia berrien eta behar diren tratamendu sistemen bideragarritasun teknikoaren berriazko analisisa egin beharko da.

### **1.7. Ura aurreztea**

- EURI-URAK USTIATZEKO ARAUDIA.

- LARRABETZU UR PARTZUERGOAN SARTU AURRETIK BALIABIDE HIDRIKOAK IDENTIFIKATZEA, BALIZKO ERABILERARAKO.

**TXOTX KAFE**

- Betegarririk ez asketan.
- Kableak lurperatzea.

**HIRIGINTZARI ETA EGUNEROKO BIZITZARI BURUZKO TAILERRA**

- Eraikuntza material natural eta testuinguruari egokituak.

**INGURUMEN-INPAKTUAREN ATARIKO TXOSTENA.** 19. or.

Hirigintza araudiak honako helburuak bermatzen dituzten eskakizunak definitu beharko dituzte hirigintza garapenentarako:

- Eraikinetarako irizpide estetikoak ezartzea eta haiek paisaian ondo txertatzeko urbanizatze jarduketak.

**1.8. Paisaia zaintzea**

- ASKETAKO BETEGARRIAK ERABILTZEA ETA UBIDEAK ESTALTZEA SAIHESTEA
- TESTUINGURUARI EGOKITUTAKO ERAIKUNTZA MATERIALAK ETA JARDUKETAK
- KABLEAK LURPERATZEA

**ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

Industria guneei dagokienez, Conten izan ezik (hari buruz pertzepzio oso txarra dago) [...] Azkenik, berriz azpimarratu behar da herritar gehienek arbuiztzen dutela Conten.

**AURRERAPEN AGIRIARI BURUZKO TAILERRAK**

- Jarduera kutsatzaileak desagerraraztea.

**BIZKAIA 21 PROGRAMA (2011-2016)**

7.2.1.D jarduketa. Udal planeamenduan zonakatze akustikoa sartzearen alde egitea, kutsadura akustikoari eta zarataren osoko kudeaketari buruzko planak prestatzea.

**INGURUMEN-INPAKTUAREN ATARIKO TXOSTENA.** 15. or.

Azpiegitura horrek [Conten] eragindako egungo eta etorkizuneko balizko ingurumen arriskuen azterketa jaso beharko du ECIaren azterlanak, eta zaborteagiaren balio-bizitza, jarduera horren ingurune jarraipeneko programa, etab. aintzat hartuta.

18. or.

Atal honetan Larrabetzuko saihebidetako eragindako zarata baloratu beharko du, EU-13ren garapenean arazoak saihesteko. Kontu horiek lurraldearen zonakatze akustikoan aintzat hartuko dira.

**1.9. Jarduera kutsagarriak galaraztea**

- CONTEN ITXI ONDOREN AURREIKUSITAKO INGURUNEA BERRESKURATZEKO PLANA EGUNERATZEA.
- ARGI-KUTSADURA MURRIZTEA.

## 2. DAUDEN BALIABIDEAK ONDO ERABILTZEKO IRIZPIDEA

### **ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

Ona iritzi zaio etxebizitza hutsen gaineko zergak handitzeari.

#### **TXOTX KAFE**

- Etxebizitza hutsen erabilera erraztea.

#### **AURRERAPEN AGIRIARI BURUZKO TAILERRAK**

- Etxebizitza hutsek eskaria ase lezakete.  
- Egungo etxebizitzak birgaitzea.

#### **IDEIA JASA**

- Birgaitzea sustatzea

#### **INGURUMEN-INPAKTUAREN ATARIKO TXOSTENA. 8. or.**

Aukera horiek LPPn jasotako esku-hartze modu guztiak hartu behar dituzte aintzat: berroneratzea, berritzea, eraikitako ondarearen gaineko jarduketa, birtrinkotzea eta garapen berriak. Aukerak zehazterakoan honako lehentasun-eskalari jarraitu beharko zaio:

- Etxebizitza hutsean esku hartzea. Udalerriko etxebizitza hutsaren kopurua ahalik eta gehien murrizten ahalegindu beharko da eta aukera guztietan helburu minimoa planaren aurrerapeneko 1. kuantifikazioan adierazitakoa hartu beharko da (%24tik %15era; 83 etxebizitza).

- Eremuak berroneratzea eta birgaitzea. Udalak halako jarduketetan duen ahalmena adierazi beharko da, Maderas Lekue eta Conauta enpresak lekuz aldatzeko proposamenak barne. Zerrategiaren eremua ez da etxebizitzak jaso ditzakeen eremutzat jo beharko, Aretxabalagane ibaia berreskuratzeko eremutzat baizik.

- Eremuen birtrinkotzea. Eraikin dentsitateak Larrabetzurako dauden maximoetara doituta pentsatu beharko dira, erreferentziazko araudian (Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea) sektore berrietarako eta oraindik gauzatu gabeko hiri lurzoru edo lurzoru urbanizagarri kalifikatutako zonetarako jasotako estandarren arabera (adib.: 10.1 sektorea *Goikola-Goikoelexalde*).

- Garapen berriak. Lurzoru urbanizagarri berriak klasifikatzea aintzat hartuko den azken esku-hartze modua izango da. Sektore berrietarako egitura trinkoak diseinatuko dira, arestiko puntuan adierazi dentsitate-atalase berriak betez, hiri segregazioa eta sakabanaketa saihestuz, nekazaritza lurzoru naturala ahalik eta gutxien artifizialduz eta zenbait erabilera eta jarduera batera izatea bultzatuz, mugikortasunaren sorrera murriztuz hala.

### **2.1. Etxebizitza hutsak edota birgai daitezkeenak bultzatzea berriak eraiki baino lehen**

- ETXEBIZITZA HUTSEN GAINEKO ZERGAK HANDITZEA.
- ETXEBIZITZA HUTSAK ETA HAIEI ERABILERA EMATEKO POLITIKAK AZTERTZEA.
- EGOERA TXARREKO ETXEBIZITZAK BIRGAITZEA.

### **ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

Ontzat jotzen da ... erabili gabeko beheko solairu komertzialak etxebizitza bihurtu ahal izatea.

#### **AURRERAPEN AGIRIARI BURUZKO TAILERRAK**

- Bizigarritasuna lonja eta beheko solairuentzat.

### **2.2. Beheko solairu komertzial hutsak etxebizitzarako erabiltzea baimentzea**

- BEHEKO SOLAIRU KOMERTZIALAK ETXEBIZITZA BIHURTZEA ARAUTZEA. MERKATARITZA-BIZITEGI ERABILEREN NAHASKETARI EUTSIZ.

**ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

Orokorrean, ez dago gogorik enpresa instalakuntza berrietarako, jendeak ez duelako nahi Udalak enpresa berriak jartzeko lurzorurik gorde dezan

**TXOTX KAFE**

- Etxebizitzak eraikitzea eta industria plana Udalari dirua emateko.

**INGURUMEN-INPAKTUAREN ATARIKO TXOSTENA. 16. or.**

Lurzoru natural gehiago industria jarduerak birkokatzeko klasifikatzeko proposamenari dagokionez (D aukera), justifikatuta ez dagoela uste da. (...) Halaber, komenigarria litzateke 3. industria gunean dagoen jarduera ekonomikoa lekuz aldatzeko aukera aztertzea, inguru horretan dagoen uholde arriskua dela-eta.

**2.3. Industriarako dagoen baino lurzoru gehiago ez gordetzea**

**ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

Industria guneei dagokienez, Conten izan ezik (hari buruz oso pertzepzio txarra dago), Sarrikola, Conauta, Terrazos edo Zerrategia ez daude jarduera gisa berez txarto baloratuta, baina hirigunetik ateratzeko eskatu da.

Edonola ere, daudenak udalerrriaren periferiara mugitzearen eta kutsatzen ez dutenak baino ez geratzearen alde egin da (azken horiek lirateke onargarri bakarrak enpresa berriak jarriz gero, udalei zergen bidez egiten dizkieten ekarpen ekonomikoak ondo baloratzen direlako).

**AURRERAPEN AGIRIARI BURUZKO TAILERRAK**

- Industria (Sierra eta Conauta) lekuz aldatzeak ez du lehentasunik.

**INGURUMEN-INPAKTUAREN ATARIKO TXOSTENA. 17. or.**

Aretxabalaganeren ubidearen ondoan dagoen zerrategia industrialdera (SAUI 8.2) mugitzeko proposamenari ingurunearentzat oso onuragarritzat jo da, bai lurzoria berreskuratzeko aukeragatik bai zati horretan ibai ertzaren balio naturalak berreskuratzeko aukeragatik.

6.1. hiri eremuan dagoen enpresaren balizko lekualdaketaz ere iritzi bera dago. Edonola ere, lurzoru horiek birkalifikatzeko Lurzoruaren Kalitatearen Aitorpena behar litzateke.

**2.4. Industrial lekuz ez aldatzea horrek bizitegia gehiago handitzea badakar**

#### **ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

Hirigunean erabili barik geratzen diren eraikinak, udal ekipamenduetarako erabili behar lirateke.

[...] Dauden kirol ekipamenduek, ordea, oso balorazio ona dute, batez ere futbol zelaia eta frontoia.

Igerilekuak ere puntuazio ona dauka, baina aldagelak hobeto zaintzea eta neguan ere erabili ahal izatea eskatzen da. Eskolako kirol instalazioei mantenu hobea eta ordutegi zabalagoak eskatu zaizkio.

Kultura ekipamenduei dagokienez, iritziak ia %50ean daude banatuta, nahikoak diren ala ez. Edonola ere, Angulerik (Kultur Etxea) balorazio oso onak lortu ditu (batzuetan txiki geratu arren).

Gazteentzat berariazko ekipamendua behar ote den, herritarren erdiek baietz uste dute, baina dirudienez lonjek eta Hori Baik premia hori betetzen dute. Edozelan ere, doako wi-fi gunea behar dela sentitzen da, baita egun euritsueterako eremu estali bat eta taldeek entseatzeko lokalak.

#### **TXOTX KAFE**

- Hilerrria beste toki batera mugitzea.
- Igerileku estalia edo hitzarmena Deriorenkin.
- Kultur etxe handiagoa.
- Gazteentzako etxea edo lonjak arautzea.
- Hori Bai egokitzea eta babestea.
- Dauden elkarteentzako lokalak.
- Zuntz optikoa auzoetaraino.

#### **IDEIA TAULA**

- Zinema, jolastokia, ur-parkea, bizikleta pista, zaldientzako pista, motorrentzako pista, jolas-parkea, skate pistak, igerileku estaliak eta ordutegi zabalagoa, kiroldegia.

#### **AURRERAPEN AGIRIARI BURUZKO TAILERRAK**

- Eskola izan ezik, dauden ekipamenduak eta lokalak optimizatzea handitu beharrean.
- Ez da beharrezkotzat jo hilerrria lekuz aldatzea.

#### **INGURUMEN-INPAKTUAREN ATARIKO TXOSTENA. 16. or.**

Planeko jarduketan balizko eraginak identifikatzeari dagokionez, 25 identifikatu dira guztira. Bi larritzat jo dira (nekazaritza balio handiko lurzorua galtzea eta ondarea kaltetzea, hilerrria lekuz aldatuz gero) (...)

### **2.5. Dauden ekipamenduak eta lokalak optimizatzea**

- HILERRIA LEKUZ EZ ALDATZEA.

### 3. DAGOENA ZUZENDU EDO HOBETZEKO IRIZPIDEA

#### **HIRIGINTZARI ETA EGUNEROKO BIZITZARI BURUZKO TAILERRA**

- Egun autoek duten lehentasuna mugatzea, herriaren eta ibaiaren arteko irazkortasuna, trantsizio adeitsua.
- Latxubiko zubia berreskuratzea.
- Zubibarri ingurua urbanizatzea oinezkoentzako erabilera hobea izateko.

#### **IDEIA JASA**

- Ibaia herriaren eguneroko bizitzan sartzeko jarduketak: ibilbideak, baratze ekologiko txikiak, konpostgailu komunitarioa, bainuetarako putzua, sega lanetarako larreak, belardiak, udan itzala emateko egiturak, fruitu arbolak...
- Ibaia herritarren partaidetzaz eta auzolanean berreskuratzeako proiektua.

#### **3.1. Ibaiaren ingurunea hiriarekin bateratzea**

- TRATAERA BEREZIA IBAIAREN ETA HIRIAREN ARTEKO BIDEARI. LEHENTASUNA OINEZKOEI.
- HERRITARREN PARTAIDETZAREKIN, EGUNGO PARKE PROIEKTUA BERRIKUSTEA.

#### **HIRIGINTZARI ETA EGUNEROKO BIZITZARI BURUZKO TAILERRA**

- Uholdeak prebenitzeko jarduketa. Eta ubide naturalak errespetatzea.

#### **AURRERAPEN AGIRIARI BURUZKO TAILERRAK**

- Uholdeak saihesteko irtenbideak.

#### **IDEIA JASA**

- Ubideak eta isurketak errespetatzea eta haiei egokitzea etorkizunean arazoak ekiditeko.

#### **BIZKAIA 21 PROGRAMA (2011-2016)**

3.3.1.A. jarduketa. URArekin lankidetzaz hitzarmenak sustatzea ibaiak bideratzeko ondasunak eta eskubideak erosteko udalentsako laguntza sustatzeko.

3.3.1.D. jarduketa. Lurralde, hirigintza eta sektore planteamenduan itzulerako 500 urteko mugaraino uholde orbanak sartzeko eta onartzea, hirigintza garapen gehiago ezartzea saihestuz.

3.3.1.E. jarduketa. Uholde arriskua duten inguru jakinak zuzentzeko neurriak proposatzearen aurrean arrotzen ikuspegi bateratua lehenestea.

3.3.1.F. jarduketa. Kalifikatuta dauden lurzoruetako obrak zorrozki kontrolatzea, uretan behera urez gainezka daitezkeen guneak handitu ditzakeen ibaiaren portaera eragin lezaketan betegarriak eta lur mugimenduak saihestuz.

#### **INGURUMEN-INPAKTUAREN ATARIKO TXOSTENA. 11. or.**

(...) planeko baimendutako erabilerak sailkatu eta definitzerakoan URA - Uraren Euskal Agentziak 2011ko apirilaren egindako "Lurzorua urez gainezkatzearen posibilitatearen mailaren arabera erabiltzeko irizpideak" bete beharko dira. Irizpide horiek dagoeneko urbanizatuta dauden eremuetan ere hartu beharko dira aintzat, urez gainezka daitezkeen eremuak mugatzen dituen inguratzailearen barruan badaude, hala nola Maderas Lekue enpresa eta Goikola auzoko 3. industria gunea (Terrazos)

18. or.

Irazgaiztutako eremu berriak sortzerakoan azaleko hidrologiaren gaineko eragina aintzat hartu beharko da, horrek isurketaren pilaketa eta lurrazpiko urak berriki betetzeko denborak murriztuko baititu (...)

Uholde arriskuen gaineko balizko eragina baloratu beharko da, zehazki, proiektatutako EU-1.2 eta EU-1.3 unitateei dagokienez (Gaztelumendi kalearen luzapena)

19. or.

Hirigintza araudiak honako helburuak bermatzen dituzten eskakizunak definitu beharko dituzte hirigintza garapentarako:

- Sare hidrografikoa eta uren eta jabari publikoaren kalitatea zaintzea; horretarako, azpiarro bakoitzaren iragazte ahalmenari eusteko eskatu beharko da, eta egungo isurketa mailak eta, horrekin batera, uholde arriskua, handitzen ez direla bermatu beharko da.

### 3.2. Uholdeak prebenitzea

- HERRITARREN PARTAIDETZAREKIN, EGUNGO UBIDERATZE PROIEKTUA BERRIKUSTEA.

#### **ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

Osasun mailan, gehienek ustez kontsultategiak ez du zerbitzu nahikorik ematen (batez ere pediatria falta da) eta, gainera, daudenak (batez ere osasun arreta eta telefonozkoa) ez dira kalitatezkoak.

#### **TXOTX KAFE**

- Zerbitzu gehiago (pediatria, analisiak, ginekologia).

### 3.3. Osasun zerbitzu gehiago jartzea

#### **TXOTX KAFE**

- Bizikletentzako aparkalekuak.
- Bidegorriak hirigunean eta beste herrietarantz.

#### **HIRIGINTZARI ETA EGUNEROKO BIZITZARI BURUZKO TAILERRA**

- Bizikletentzako bideak auzoen artean eta inguruko herrietarako. Aisiarako komunikazio gehiago.

#### **AURRERAPEN AGIRIARI BURUZKO TAILERRAK**

- Bidegorri aukera biak ondo baloratu dira (Aurrerapena).

#### **IDEIA JASA**

- Bidegorria Txorierriko haranetik egungo galtzadari zabalera kenduz.
  - Autobus publikoetan bizikletentzako tokia gordetzea.
  - Bizikletentzako bidea hiriaren eta Elexalderen artean, egungo galtzadari zabalera kenduz.
  - Txorierriko bizikleta ardatzaren (Errebalen amaitzen da) eta Goikoelexalderanzko espaloia (Sierran sortzen da) arteko lotura.
- Bidegorriak hiriaren erdialdetik Erletxerantz jarraitzea.  
Bidegorria Sierraren eta Goikoelexalderen arteko galtzadan eta ibilgailuentzako erreiak estutzea.

#### **BIZKAIA 21 PROGRAMA (2011-2016)**

3.2.1.D. jarduketa. Periferiako aparkalekuak eta bidegorriak eraikitzea eta hiriguneak oinezkoentzako bihurtzea sustatzea.

6.1. jardunbide estrategikoa. Bizkaian mugikortasun jasangarria sustatzea

6.1.1.E. jarduketa. Hirigintza planteamenduan bizikletaren erabilera sustatzea aukerako garraiobidea izan dadin, gutxienez, ardatz batek ondoko udalen arteko jarraikortasuna daukan sare bat pentsatuz.

6.1.1.F. jarduketa. Hirigintza garapen berrietan, lurzorua bertara garraio publikoaren eta motorrik gabeko baliabideen bidez (bizikletaz eta oinez) iritsi ahal izatearen arabera kalifikatzea.

6.1.1.G. jarduketa. Hirigintza planteamenduan, finkatutako lurzoruetan, haietara garraio publikoz eta motorrik gabeko baliabidez (bizikletaz eta oinez) iritsi ahal izateko aukera sartzea.

### 3.4. Bizikletaren erabilera bultzatzea

- BIZIKLETENTZAKO BIDEA PROIEKTATUTAKO TXORIERRIKO BIZIKLETA ARDATZAREN AMAIERAREN ETA SIERRAREN ARTEAN.
- BIZIKLETENTZAKO BIDEA HIRIAREN ETA ELEXALDEREN ARTEKO GALTZADAN.
- BIZIKLETENTZAKO BIDEA ERLETXERANTZ.
- BIZIKLETENTZAKO SAREA DAUDEN BIDEEN GAINEAN.

#### **ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

Aparkamendua (eta oro har hiriko trafikoa) arazo nahiko larritzat jo da udalerrian.

#### **TXOTX KAFE**

- Pentsaera aldaketa: mundu guztiak ezin du etxe aurrean aparkatu.
- Aparkaleku berria vs. aparkamenduaren antolamendua.

#### **IDEIA TAULA**

- Bisitarientzako aparkalekua futbol zelaira.

#### **HIRIGINTZARI ETA EGUNEROKO BIZITZARI BURUZKO TAILERRA**

- Trafikoa eta aparkamendua berrantolatzea: autoen presentzia txikiagoa, noranzkoen eta aparkatzeko plazen aldaketa... Bai erdialdean, bai Zubitalden edo Eleixosten.

#### **AURRERAPEN AGIRIARI BURUZKO TAILERRAK**

- Trafikoa, aparkatzeko plazak eta seinaleak antolatzea.
- Iparrean ertzeko bidearen proposamena arbuaitu egin da (Aurrerapena).
- Herriaren sarreran edo frontoiaren atzean aparkaleku eragozlea.
- Trafikoa desbideratzea eskolaren ingurua arintzeko.

#### **IDEIA JASA**

- Hiriaren eta Elexalderen artean errepidearen ibilbide sigi-sagatsua trafikoa nasaitzeko.
- Aparkaleku gehiagoren premia aztertzea eta, egongo balitz bakarrik, toki handi bakar batean banatutako aparkamendu plazak.

#### **BIZKATA 21 PROGRAMA (2011-2016)**

3.2.1.D. jarduketa. Periferiako aparkalekuak eta bidegorriak eraikitzea eta hiriguneak oinezkoentzako bihurtzea sustatzea.

#### **INGURUMEN-INPAKTUAREN ATARIKO TXOSTENA. 7. or.**

- Mugikortasun jasangarri plana definitzea, ibilgailu pribatua bezalako garraio ez jasangarri moduak murriztu xedez.

### **3.5. Trafikoa eta aparkamendua berrantolatzea**

- MUGIKORTASUN PLANA: ZIRKULATZEKO NORANZKOAK, LEHENTASUNA, APARKAMENDU PLAZAK...

#### **ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

Dagoen garraio publikoaren kalitatea ondo baloratu da, baina zenbait helmugatarako zuzeneko loturak falta direla ere sentitu da, batez ere Galdakaoko ospitalerako eta, neurri txikiago batean, Lezamako trenerako, metrorako eta Mungiarako.

Gazteek proposatutako hobekuntzen artean, gaueko eta aste buruetako garraioa hobetzea, Leioako Campuserako garraio zuzena, garraio publikoaren kostua murriztea eta zenbait talderi (langabetuei, ikasleei, eta abarri) laguntzak ematea daude.

Pertsona batzuek Sarrikolan autobus zerbitzurako berinapea jartzeko eta Larrabetzu eta Lezamako trena eta etorkizunean, eraikitzen denean, Galdakaoko metro geltokia lotzeko moduak aztertzeko eskatu dute.

#### **TXOTX KAFE**

- Ospitalerako autobusa.
- Lezamarainoko trena edo tranbia.
- Lezamarainoko anezka.
- Taxilaria.

#### **IDEIA TAULA**

- Lezamarainoko trena.

#### **HIRIGINTZARI ETA EGUNEROKO BIZITZARI BURUZKO TAILERRA**

- Autobusak herrian duen ibilbidea arrazionalizatzea.

#### **AURRERAPEN AGIRIARI BURUZKO TAILERRAK**

- Lezamarainoko tranbia edo anezka, trena baino hobeto.
- Autobus linea gehiago. Erdialdea eta auzoak lotzea.

### **3.6. Garraio publikoa hobetzea**

- LEZAMATIKO TRENA LUZATZEKO LURZORUA GORDETZEA

**TXOTX KAFE**

- Bidexkak garbi eta zabalik edukitzea.
- Bidexketan ormigoi gehiegi dago.

**HIRIGINTZARI ETA EGUNEROKO BIZITZARI BURUZKO TAILERRA**

- Bidexka sarea berreskuratu eta mantentzea.

**AURRERAPEN AGIRIARI BURUZKO TAILERRAK**

- Oinezkoentzako ibilbideak (ez errepidez) auzoen artean eta gertuko herrietara. Bidegorriaren erabilera mistoa.
- Bide zaharren inbentarioa egitea.

**IDEIA JASA**

- Bidexka mapa eguneratzea eta bidexkak egoera onean edukitzea.

**3.7. Bidexka sarea babestu eta mantentzea**

- AUZOEN ARTEKO ETA INGURUKO HERRIETARAKO IBILBIDEEN INBENTARIOA EGITEA ETA HAIK BERRESKURATU ETA BABESTEIA.

**ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

Orokorrean, herritarren ustez interes historiko eta kulturalako ondare elementu guztiak babestu behar lirateke. Lehentasunez, interes arkitektonikoa duten baserriak eta interes historiko eta kulturalako eraikin bereziak azpimarratu dituzte, nekazaritza eta abeltzaintza bide zaharrak, Gerra Zibilaren aztarnak, erromatar galtzada, errota, Santiagorako bidea, etab. alde batera utzi barik.

**TXOTX KAFE**

- Alaioko eskolak, Goikoelexaldeko bolatokia, Gerra Zibilaren aztarnak, garbitegiak... berreskuratzea.

**HIRIGINTZARI ETA EGUNEROKO BIZITZARI BURUZKO TAILERRA**

- Gerra Zibilaren aztarnen inbentarioa eta babesa. Haiek lotzeko ibilbidea.

**AURRERAPEN AGIRIARI BURUZKO TAILERRAK**

- Honakoak babestea: Santiagorako bidea, baserriak (eraikina ez ezik, haien jarduera ekonomikoa ere bai), Hori Bai, bide zaharrak, Gerra Zibilaren aztarnak...

**IRADOKIZUNAK**

- Arkeologia industrialak (errotak, burdinolak...) babestea)

**3.8. Ondare historikoa eta kulturala babestu eta zaintzea**

- ONDARE KATALOGOAN LANDA BIDEEN SAREA, GERRA ZIBILAREN ETA ARKEOLOGIA INDUSTRIALAREN AZTARNAK, HORI BAI... SARTZEA

## 4. HAZKUNDE BEHARREZKO ETA NAHIKOAREN IRIZPIDEA

### **ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

Larrabetzuko herritarren ustez, orokorrean, udalak egungo biztanleriaren antzekoa izan behar du, 2.000 biztanle inguru, alegia.

#### **TXOTX KAFE**

- Hazkunde mugatua, egungo erroldaren proportzioan.
- Etxebizitza gehiago periferian.

#### **AURRERAPEN AGIRIARI BURUZKO TAILERRAK**

- Egiazko etxebizitza premien araberako hazkundea.
- 2.000 biztanle inguruko biztanleria.
- Aurrerapeneko A, B, C eta D proposamenak ezetsi dira. Ez jarduteko aukera (90 etxebizitza) nahiago da.

#### **IDEIA JASA**

- Hazi baino lehen, egiazko etxebizitza premiak eta dagoen eskaintza (salgai) edo balizkoa (hutsik daudenak edo birgaitu beharrekoak) aztertu.

### **BIZKAIA 21 PROGRAMA (2011-2016)**

3.1.5. helburua. Zorua erabilera aldaketak eta okupazioa minimizatu eta optimizatu

#### **INGURUMEN-INPAKTUAREN ATARIKO TXOSTENA. 7. or.**

Planak bizitegi garapeneko helburu zehatza definituko du, eta udaleko egiazko eskariaren arabera justifikatu beharko da hura.

(...) 1. kuantifikazioak, antzemandako akatsa zuzendu ondoren, garapen jasangarria lortzen laguntzen du hoberen.

(...) etxebizitza premia endogenoaren kuantifikazioan harrotze eragilea ez aurreikustea gomendatzen da eta, aurreikusiz gero, eragile horrek ez luke identifikatutako egiazko premien %5-10 gaingitu behar.

### **4.1. Behar den etxebizitza baino ez eraikitzea**

- LURZORU GEHIAGO OKUPATU AURRETIK ERAIKITAKO ONDAREA OPTIMIZATZEA.
- EGIAZKO ETXEBIZITZA PREMIEI BURUZKO AZTERLANA

### **ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

Eraiki beharreko etxebizitza ereduak batez ere erosketako BOE izan behar du (45 urtez beherakoan artean, ordea, gehienek alokairua nahiago dute).

#### **TXOTX KAFE**

- Etxebizitza babestuak.

#### **IDEIA TAULA**

- Etxebizitza merkeagoak.

#### **AURRERAPEN AGIRIARI BURUZKO TAILERRAK**

- Etxebizitzen alokairua.
- Etxebizitza sozialak/ babestuak.

#### **IDEIA JASA**

- Andel (irabazi asmorik gabeko kooperatibak; etxebizitzen jabetza kooperatibaren eskuetan dago beti eta kideek parte hartzen dute etxebizitza mugarik gabe eta merke erabiltzeko eskubidea daukate) ereduko etxebizitza esperientzia pilotua egitea.
- Alokairuko etxebizitza soziala sustatzea.

### **4.2. Arrazoizko prezioko etxebizitza eraikitzea**

- ANDEL EREDUAREN APLIKAZIOA AZTERTZEA.
- ALOKAIRU SOZIALEKO ETXEBIZITZAK SUSTATZEA.

#### **ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

Eraiki beharreko etxebizitza ereduari dagokionez, batez ere gehienez 3 altuerako pisu blokeak izan behar dute, batez beste 80-90 m<sup>2</sup>koak.

#### **TXOTX KAFE**

- 3 edo 4 altuera gehienez ere.
- Zenbait etxebizitza mota horrenbeste familia motarentzat.

#### **AURRERAPEN AGIRIARI BURUZKO TAILERRAK**

- Etxebizitzak egungo familien batez besteko tamainari egokituta.
- 3 edo 4 altuerako etxebizitzak.

#### **INGURUMEN-INPAKTUAREN ATARIKO TXOSTENA. 2. eta 6. or.**

Egun indarreko arau subsidiarioek 6 egikaritze-unitate jaso dituzte. Haietan 90 etxebizitza berri egikari daitezke, 34.709 m<sup>2</sup>ko azalera okupatuz. Haietatik, 28.018 m<sup>2</sup> 10.1 sektoreari dagozkio (lurzoru urbanizagarria). Bertan, 19 etxebizitza eraikitzea proiektatu da, eta horrek ematen duen eraikigarritasuna 0,17 m<sup>2</sup> sabai/ m<sup>2</sup> zoru da.

(...) eta 7 etxebizitza/Ha-ko dentsitatea, Bilbo Metropolitarrako LPPn dentsitate txikiko garapenetarako xedatutako minimoa (15-30 etx/Ha) baino gutxiago.

8. or.

Horri dagokionez, Sail honen ustez planak ez luke aurreikusi behar familia bakarreko edota familia biko etxebizitza tipologia duten dentsitate txikiko bizitegi gunetan eraikitzea.

### **4.3. Etxebizitza metatua eraikitzea**

- BEHEKO SOLAIRUA GEHI HIRU GEHIENEZKO GARAIERARAKO.
- FAMILIA TAMAINARIK TXIKIENARI EGOKITUTAKO ETXEBIZITZA MODULUAK.
- FAMILIA BAKARREKO ETXEBIZITZARIK EZ ERAIKITZEA.

#### **ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

Hezkuntza ekipamenduei dagokienez, azpimarratu behar da biztanleen ehuneko handi batek ez dituela ezagutzen ekipamendu horiek ematen dituzten zerbitzuak, baina ezagutzen dituztenen aburuz aski dira. Eskola Publikoak, Haur Eskolak eta Ludotekak balorazio ona jaso dute, baina bilduta egotea eta egungo eta etorkizuneko premiei begira dimentsio handiagoa izatea eskatu da.

#### **TXOTX KAFE**

- Angulerin ikasteko gunea.
- Eskola eta haurreskola elkarrekin.

#### **IDEIA TAULA**

- Eskola modernizatzea.
- Institutua herrian.
- Ludoteka handiagoa.

#### **AURRERAPEN AGIRIARI BURUZKO TAILERRAK**

- Eskola handitzea (jantokia, ludoteka)dagoen lurzorua babestuz: garaieran hazi.
- Apaizetxea eskola hornidurararako, eguneko zentrorako edo gizarte larrialdietarako.

#### **IDEIA JASA**

- Eskola proposatutako HAPNko ereduaren arabera eta udalaren bilakaera demografikoa aintzat hartuta handitzea.
- Apaizetxea eskola ekipamendurako edo hari lotutako zerbitzuetarako (ludoteka, liburutegia, musika edota plastika gela, eskolaz kanpokoak, udaleko kultura jarduerak...) egokitzea.
- Estali gabeko frontoi txiki bat (22 x 8 m) eraikitzea futbito zelaiaren eta igerilekuaren artean.
- Aterpearen egitura aldatzea funtzionaltasuna emateko.
- Ludoteka handitzea eta adinaren araberako esparru bi egokitzea. Toki erabilgarriaren arabera zerbitzua 15 urte arte zabaltzea.

### **4.4. Eskola hobetzea eta hura handitzeko aukera aurreikustea**

- APAIZETXEA ESKOLA HORNIDURA GISA SARTZEA.
- FRONTOI TXIKI BAT AURREIKUSTEA.

**ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

[...] herritar gehienek ez dituzte gizarte ekipamenduak ezagutzen, baina hala ere uste dute eguneko zentroa edota ezgaitasuna duten adinekoentzako egoitza eduki behar dela.

**TXOTX KAFE**

- Eguneko zentroa.
- Egoitza.
- Boluntarioak bultzatzea.

**AURRERAPEN AGIRIARI BURUZKO TAILERRAK**

- Apaiz etxea eskola hornidurararako, eguneko zentrorako edo gizarte larrialdietarako.

**4.5. Eguneko zentroa egitea**

- PREMIEN IKERKETA

**ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

Kontsultatutako herritarren erdiek baino gehiagok uste dute egun udalak dauzkan kirol ekipamenduak ez direla aski (skaterako eremuak, saskibaloia, eskalada murrua, ping-ponga, etab. falta dira).

**IDEIA TAULA**

- Skate pistak

**4.6. Skate pista eraikitzea**

- SKATE PISTARAKO LURZORUA GORDETZEA

## 5. BURUASKITASUNEN ETA TOKIKOARI LAGUNTZEKO IRIZPIDEA

### **ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

Herritarren ustez, udalaren ekonomia ereduaren oinarriak merkataritzaren sustapena (batez ere herriko merkataritza txikia, herritar ia guztien ustez bultzatu behar baita) eta lehen sektorea (tradizioz zeukan pisua galdu baitu) uztartu behar ditu.

### **TXOTX KAFE**

- Merkataritza (tindatze lanak, zapatagintza, janari dendak...) sustatzea

### **HIRIGINTZARI ETA EGUNEROKO BIZITZARI BURUZKO TAILERRA**

- Merkataritza txikia bultzatzea. Andra Maritik eta plazatik harago.

### **AURRERAPEN AGIRIARI BURUZKO TAILERRAK**

- Herriko merkataritza sustatzea.
- Merkataritza eremu handiak instalatzea ekiditeko neurriak.

### **BIZKATA 21 PROGRAMA (2011-2016)**

8.3.4.C. jarduketa. Tokiko merkataritza sustatzeko plan estrategikoak idazteko eta ezartzeko diru-laguntzak.

### **5.1. Merkataritza txikia bultzatzea**

- EREMU HANDIKO MERKATARITZA EKIPAMENDUAK INSTALATZEA EKIDITEA
- OINEZKOARI LEHENTASUNA EMANGO DIOTEN BIDE IRTENBIDEAK.

### **ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

Izan ere, herritar gehienek ustez Udalak neurriak hartu behar ditu nekazaritza eta abeltzaintza bultzatzeko. Lehen sektorea pizteko eremuan nekazaritza ekologikoko ustiategiak eta landa turismoak sortzea sartu da.

### **TXOTX KAFE**

- Baserria eta lehen sektorea bultzatzea.

### **HIRIGINTZARI ETA EGUNEROKO BIZITZARI BURUZKO TAILERRA**

- Nekazal erabilerarako lurrik egokienak identifikatzea eta babestea.
- Lur-bankua sortzea gazteak lehen sektorean sartzea errazteko.
- Laguntza lehen sektorearentzat: ekoizpen ekologikoari, herriko marka sortzeari, azokei eta merkatu txikiari, herriko produktua saltzeko dendari.

### **AURRERAPEN AGIRIARI BURUZKO TAILERRAK**

- Lehen sektorea, udaleko jarduera ekonomiko lehenetsia.
- Nekazaritzari [...] laguntzeko azpiegiturak sortzea (laborantza eta salmenta).
- Nekazaritzarako lurzorua 50 urtera babestea. Jarduera ekonomiko, sozial eta ekologiko gisa.
- Baserriaren egoerari eta erabili gabeko lurrei buruzko datu bilketa.
- Gurpideren proposamenak: lur-bankua, plusbalioen %5 lurzorua erosteko publikorako.

### **IDEIA JASA**

- Planean berariazko kapitulua nekazaritzaren sektorea sustatzeko neurriak zehazteko.
- Erabili gabeko lurren inbentarioa.
- Eraikin berrien plusbalioen zati bat lurren erosteko publikorako.
- Pinuaren eta eukaliptoaren monolaborantza mugatzea, espezie autoktonoak lehenetsiz.
- Erabili gabeko lonja hutsen bat nekazaritza eta abeltzaintzako produktuak eraldatzeko zentrorako hautatzea.
- Eremu bat konpostaje planta baterako gordetzea.
- Nekazaritza eta abeltzaintzarako behar diren azpiegiturei hirigintza tasarik ez ezartzea.
- Udalak 5.000 m<sup>2</sup> inguruko lursail publiko batean nekazaritza ustiategi bat sortzea babestea.

**BIZKAIA 21 PROGRAMA (2011-2016)**

- 3.1.6. helburua. Nekazaritza Balio Handiko lurzorua babestea
- 3.1.6.B. jarduketa. Nekazaritza Balio Handiko lurzorua lur-bankuan sartzea sustatzen duten politikak bultzatzea.
- 3.1.6.C. jarduketa. Nekazaritza Balio Handiko lurzorua basotzea edo beste erabilera batzuetarako birkalifikatzea galaraztea.
- 8.1.1.B. jarduketa. Laguntzak emateko araudia nekazaritza eremu jasagarria handitzeko egokitzea.
- 8.1.1.C. jarduketa. Bizkaiko lur-bankua sustatzea.
- 8.1.1.D. jarduketa Nekazaritza eta ingurumeneko programak eta laguntzak bultzatzea.
- 8.1.1.E. jarduketa. Ekoizpen ekologiko eta integratua bultzatzea.
- 8.1.1.F. jarduketa. Landa eskualde jakinetan sare ekonomikoaren lehiakortasunari laguntzea.
- 8.1.1.G. jarduketa. Gazteak nekazaritza ustiattegietan eta landa ingurunean sartzea sustatzea.
- 8.1.1.H. jarduketa. Landa Garapenerako Programetan jasagarritasuneko irizpideak sartu.
- 8.1.2.B. jarduketa. Tokiko merkatuak eta artisautzako ekoizpena bultzatzea eta sustatzea.
- 8.1.2.C. jarduketa. Landa Garapenerako Elkarleen bidez tokiko merkatuak indartzeko jarduketak bultzatzea.

**INGURUMEN-INPAKTUAREN ATARIKO TXOSTENA. 9. or.**

Halaber, nekazaritza balio handiko lur urbanizazina lur urbanizagarri kalifikatzea txarto baloratuta dago, Bilbo Metropolitarrako LPPren arabera nekazaritza garapen lehenetsiko udalerrri definitutako udalerrri batean lurzoru produktiboa galtzea dakarrelako; jarduketa hori, egitekotan, ahal den guztia gutxitu beharko da, arestian aipatu irizpideen arabera.

**10. or.**

Lurzoru urbanizagarri sailkatzeko proposatutako eremu guztiek nekazaritza eta abeltzaintza eta landa kategoriako balio estrategiko handiko azpikategoriako lurzorua ukitzen dute. Nekazaritza eta basogintzako LPSren arabera (...) nekazaritza balio handiko lurzoruen gaineko hirigintza hazkundera ez dira desiragarriak, eta goragoko mailako lurralde ordenamenduko tresna batean jasota badaude baino ez dira onargarriak.

Nekazaritza eta basogintzako LPSk udal planeamendua lotzen du, balio estrategiko handiko lurzorua nekazaritza lurzoru babestu jotzeari dagokionez, eta planeamendu horrek lurzoru horietarako erabilera eta jardueren arauak matrizea erabili behar du. Halaber, Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/28 Legeko xedapenetan lurzoru mota horrentzat jasotako lotura maila ere adierazi da, zehazki "Nekazaritza balio handiko lurzoruen babes berezia" 16. artikuluan eta ekainaren 30eko 2/2006 Legea aldatu duen amaierako bigarren xedapenean adierazitakoak.

Araudi horren arabera, nekazaritza balio handiko lurzorua estrategikoak izango dira eta gizarte intereseko ondasun joko dira; halaber, nekazaritza balio handiko lurzoruetan aurreikusitako administrazio proiektu edo jarduketa orotarako nekazaritzari buruzko eskumena duen foru organoak txostena egin beharko du hura behin betiko onartu aurretik.

Azkenik, adierazi behar da nekazaritza eta basogintzako LPSk plan, programa eta proiektuen garapenak eragindako nekazaritza eta basogintzako sektore-atxikipena ebaluatzeko metodologia ezarri duela.

**14. or.**

Lurzoru produktiboaren galera: (...) nekazaritza eta basogintzako LPS behin-behinean onartzeko agiriko 14. atalak horri buruz adierazitakoa hartuko da aintzat.

**17. or.**

Ingurune Organo honen ustez, nekazaritza balio handiko lurzorua lurzoru urbanizagarri sailkatzeak udalerriko etxebizitza premiak asetzeko azken aukera izan behar du. Premia horiek haren hazkunderaren arabera ondo arrazoituta egon beharko dute, eta LPPn eta txosten honetako 2. atalean jasotako gainontzeko esku-hartze moduak agortu direla egiaztatu ondoren.

**19. or.**

Besteak beste, derrigorrez, honakoak zehaztu eta idatzi behar dira:

- Udalerrriaren nekazaritza ekoizpen ahalmen osoari eustea ahalbidetuko duten neurri orekatzaileak definitzea. Neurri horiek hirigintza garapenerako sektoreei lotuta egongo dira, lurzoru produktiboa ezabatu ahala egikaritu daitezten.

**20. or.**

ECIAren azterlanak azterlanaren eremuko ingurunearen kartografia egin du (...) baina honako alderdiak osatu beharko dira bertan:

- Nekazaritza ustiapenerako unitateak.

## **5.2. Lehen sektorea bultzatzea**

- LEHEN SEKTOREA SUSTATZEKO BERARIAZKO KAPITULUA HAPN-N.
- NEKAZARITZA BALIO HANDIKO LURRAK BABESTEIA.
- ERABILERA KALTEGARRIAK (NEKAZARITZAKO ERREGAIAK, MONOLABORANTZAK...)
- NEKAZARITZA EKOLOGIKOA BULTZATZEKO POLITIKAK.
- HIRIGINTZA JARDUERAK SORTUTAKO PLUSBALIOAREN ZATI BATEKIN LURBANKUA SORTZEA.
- BARATZE KOMUNITARIOAK SORTZEA.
- NEKAZARITZA ERALDAKETAKO ZENTRO TXIKIA INSTALATZEKO ARAUDIA

**ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

Lehen sektorea pizteko ereduan [...] landa turismoak sortzea sartu da.

- Herritar batzuek ondarea turismoa sortzeko ere erabiltzeko eskatu dute, industriaren, edo gutxienez kutsatzaileenaren ordez hura izateko ekonomiaren motorra. Horretarako seinaleak hobetu behar lirateke, egungoak zail egiten duelako gauzak aurkitzea eta interpretatzea.

**AURRERAPEN AGIRIARI BURUZKO TAILERRAK**

- Landa turismoari laguntzeko azpiegiturak sortzea (Santiagorako bidea).

**BIZKAIA 21 PROGRAMA (2011-2016)**

8.4.2.A. jarduketa. Turismo garapeneko toki eta eskualdeko erakundeekin lankidetzan estuan, kulturari eta kultura eta ingurumen ondareari lotutako baliabideak sortzearen alde egitea.

8.4.2.B. jarduketa. Kalitatezko turismo ekipamendu, baliabide eta zerbitzu jasagarriak sortzen laguntzea, lehendik daudenetan ere prozesu horiek bultzatuz eta indartuz, egonaldi luzeetako itzulerak bermatzeko.

8.4.2.D. jarduketa. Turismo produktu jasagarriak, hala nola naturari lotuta egin daitezkeenak edo euskal kulturaren adierazpen guztiei lotutakoak, sortzeko erraztasunak ematea.

**5.3. Landa turismoa bultzatzea**

## 6. KOMUNITATEKO BIZITZAREN IRIZPIDEA

### **ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

Eraikin berriei dagokienez, beheko solairu bizigarria duten etxebizitzaren eta merkataritzako lokala duten etxebizitzaren arteko oreka lortu behar litzateke.

### **BIZKATA 21 PROGRAMA (2011-2016)**

5.2.1 helburua. Aniztasuna eta erabilera nahasketa dituzten hiri gune eredu trinkoetarantz bideratzea, hiri egitura finkatuak eta ondare eraikia optimizatuz haietan.

### **6.1. Erabilerak nahastea: denden eta etxebizitzaren arteko oreka beheko solairuetan**

### **ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

Larrabetzu [...] oinezkoentzako eremuak zabaltzearen eta toki librea batez ere berdeguneetarako eta aparkalekuetarako erabiltzearen alde dago.

#### **TXOTX KAFE**

- Eleixoste eta frontoiaren, eskolaren eta Gure Etxearen ondoko kalea oinezkoentzako bihurtzea.

#### **HIRIGINTZARI ETA EGUNEROKO BIZITZARI BURUZKO TAILERRA**

- Oinezkoentzako lehentasuna kale batzuetan: Lehendakari Agirre, okindegiaren aurrean, Marutirako bidean...

#### **AURRERAPEN AGIRIARI BURUZKO TAILERRAK**

- Oinezkoentzako erabilera lehenestea, hirigunean trafikoa mugatuz.  
- Oinezkoentzako ibilbide sarearen balorazio ona.  
- Oinezkoentzako bihurtzea eta espaloiak eraikitzea.

#### **IDEIA JASA**

Lehendakari Agirren, frontoiaren eta eskolaren aurrean, trafikoa murriztea.

- Eleixoste oinezkoentzako bihurtzea.  
- Ibaiarekiko paralelo urbanizatuko den kalean oinezkoen lehentasuna ematea.  
- Jauregi Apezpikoa (Goikoelexalde) oinezkoentzako bihurtzea.

### **BIZKATA 21 PROGRAMA (2011-2016)**

3.2.1.D. jarduketa. Periferiako aparkalekuak eta bidegorriak eraikitzea eta higeruneak oinezkoentzako bihurtzea sustatzea.

6.1.1.G. jarduketa. Hirigintza planteamenduan, finkatutako lurzoruetan, haietara garraio publikoz eta motorrik gabeko baliabidez (bizikletaz eta oinez) iritsi ahal izateko aukera sartzea.

### **6.2. Oinezkoentzako gune gehiago egitea edo oinezkoa lehenestea**

- LEHENDAKARI AGIRRE KALEA, ELEIXOSTE, IBAIAREN ONDOKO KALEA ETA JAUREGI APEZPIKUA KALEA OINEZKOENTZAKO BIHURTZEA EDO ERABILERA PARTEKATUA.

### **ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

- Egun euritsuetarako eremu estalia [...] falta dela sentitzen da.

#### **TXOTX KAFE**

- Plaza estalia.

#### **HIRIGINTZARI ETA EGUNEROKO BIZITZARI BURUZKO TAILERRA**

- Aterpea egun euritsuetarako.

### **6.3. Aterpea eraikitzea**

#### **ADOS CONSULTINGEN ONDORIOAK**

Bestalde, berdeguneak eta jolasguneak urriak direla (parke bat sortzeko eta espaloiak eta argiztatzea amaitzeko eskatu da) eta haien mantenua eskasa dela (zabuak bereziki) uste da.

#### **TXOTX KAFE**

- Traba arkitektonikoak zuzentzea.
- Galtzadarriak traba arkitektonikoa izan daitezke.
- Arantza zatibituak erasandakoen elkartea prest dago traba arkitektonikoei buruzko txosten bat egiteko.

#### **IDEIA TAULA**

- Zabu gehiago.
- Jesarlekuak eskolan.
- Traba arkitektonikoak: igerilekurako eta eskolarako eskailerak.

#### **HIRIGINTZARI ETA EGUNEROKO BIZITZARI BURUZKO TAILERRA**

- Espazio publikoen garbiketa zaintzea. Eta diseinu berriak zaintzea, sare koherentea ziurtatzeko.
- Zoladurak konpontzea: galtzadarri irregularrak, plazako zorua egoera txarrean, espaloien jarraikortasunik eza, traba arkitektonikoak...

#### **BIZKAIA 21 PROGRAMA (2011-2016)**

7.2.2.B. jarduketa. Udal planeamenduan osasun irizpideak sartzeko pizgarriak ezartzea.

7.2.2.C. jarduketa. Bizkaiko udalerrietan Pertsona Nagusientzako Hiri Adeitsuen kontzeptuaren garapena sustatzea.

### **6.4. Espazio publikoak hobetzea**

- IRISGARRITASUN PLANA INTEGRATZEA.